

## LARREKOAREN MINTZOTIK IZADIA IRAKASLE

*Karlos del Olmo*

### **ALEGIAK**

*F. M. Samaniego*

*Itzultzailea: Koldo Biguri*

*Arabako Foru Aldundia*

*22 euro*

Belaunaldi bakoitzak klasikoak bere modura itzuli behar omen ditu, garaian garaiko ekandu eta joeren arabera. Hala diote, behintzat, teorilariek. Felix Maria de Samaniego arabar idazlearen *Alegiak* liburua, beharbada, ez da agertuko klasikoen zerrenda kanonikoetan, munduko beste hizkuntzetara bihurtzen diren haietan, halere, gure inguruko kultur ondareko idazlan eredugarria eta ikur modukoa denik ezin ukatu. Heldu zaio, beraz, XXI. mendeko euskara batura isurtzeko garaia, erakunde ofizialek bultzatuta eta arabar itzultzaile bat ararteko. Itzulpengintzan ez ezik, erromantzeak eta bestelako ahozko materialak biltzen hamaika lan egindakoa da Koldo Biguri, bestalde. Ele biko edizio mamitsua paratu dute, antzinako ilustrazioak eta guzti. Ia ehun eta berrogeita hamar orrialde sarrera, argipen eta abar dakartza ikerlarien gozagarri. Zalantza egin daiteke aukeraturiko azala egokiena ote den halako lan baterako, baina, nolana ere den, liburuak helburu nagusiak egoki betetzen du: ikerlariei gogorako bazka eta ume-gurasoei gura beste gozaldi ematea.

Ahozko literaturatik eta herri tradizioetatik edaten duen literatura mota horrek izadiaren irudiak morala eta gizabidea erakusteko eta irakasteko darabiltzanez gero, lekuz kanpo samar lirudike egun, itxura batean, bizi gaituen ikus-entzunezkoen gizartean, horrelako gogoetak, irudi literarioak eta literatura klasea bera beste garai batekoak baino, unibertso paralelo batetik etorriak diruditenetik.

Itzultzaileak berak sarreran dioenez, dema ez zen nolana hikoia. Itzulpena baino, bertsioa dela dio. Baina, zein itzulpen ez da, azken buruan, bertsio? Edukia bera ez ezik, forma ere euskaratu ez euskaratu aukeratu beharra izan zuen. Jatorriz testu neurtua izanda, euskarazko neurri moldeetara ekartzeak beste oztobide bat erantsi dio itzulpengintzari. Behargaia, berez, neketsua ez balitz legez. Neurria —zortziko nagusia, batez ere— aukeratutakoan, beste zama bat ostean: helburu didaktikoa ere erdiestea, bestera esanda, egungo ume euskaldunei onuratsu jazotzeko bidea topatzea, gustuko parabolak buruz ikasi ahal izateko modu-moduan.

Bertsio berri hau, jakina, ez da hutsetik abiatu, Agustin Paskual Iturriagak duela bi mende euskarazko bat atondu zuelako neurri librean. Baina beste baten testua zuzendu behar denean jazotzen den legez, hobe, sarri ere sarri, bestearena alde batera guztiz uztea eta nork bere alorrari huts-hutsetik ekitea. Itzulpengintzaren aldetik, beste kontu jakingarri bat ere dago: estetikoa. Edizio ele bikoia izanda, bi testuak elkarren ondoan joan beharrak elkarrengandik tarte handiegirik ez sortzera behartu izan du. Itxura batean samurra izan zitekeen bidea are malkartsuago eta arantzatsuago bihurtzeko. Azken-azken buruan, ozenki irakurtzeko testuak dira, dramatizazio jokoetarako egokiak, alde.

Gauza ezaguna da hainbat itzulpenetan izenburua beste hizkuntza batean ematea izaten dela eginbeharrak gaitzena. Zer ez da esango, orduan, ia bi orririk behin izenburuak itzultzen jardun behar izaten denean? Alegi bakoitzaren izenburuak erabaki beharrak, ia bestela baitakoan, okertzeko bidea dakar. Esaera zaharra parafraseatuta, aukera urte, gezur urte esan genezake.

Samaniegoren *Alegiek* garai hartan, berritasuna ekarri zuten bertsoz idatzitako kontakizun ziren aldetik, baina atzetik tradizioaren soka luzea zekarten: munduko bazter guztietan ia gizakia gizaki denetik ezagun diren animalien bidezko narrazio didaktikoak, hau da, ikaskizunen bat proposatzen duten kontakizunena. Garaian garaiko herriaren gogo kolektiboa, pentsaera komuna ederto erakutsi ohi dute. Erdi Aroko Bestiarioak izan ziren geroko moral erakusle haien oinarri literarioa. Alegien XVIII. mendeko loraldia azaltzeko, garai hartan zabaldu zen poesiaren eta literaturaren ikuspegi utilitarista eta etikoa ondo kontuan izan behar ditugu.

Samaniegok aire berri bat erantsi nahi izan zien berez oso zurrunduta zeuden gai batzuei, nahiz eta herriak, zelan edo hala, gomutan ondo josita zituenez gero, nekez urrundu zitekeen herriaren gustutik. Itzultzailearen antzera, egileak ere tradizioa eta modernitatea izan zituen borroka gai eta hautu. Aitzindari gertatu zen, eta bizi zela ere, hainbat argitalpen eduki zituen Samaniegoren bildumak, beste alegi idazle andana bati bidea ebakita. Ez dugu ahaztu behar modernitatearen eta tradizioaren arteko kinka ulertzeko orduan Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide izan zenik, pentsamolde jakin baten erakusgarri.

Poetikek eta eskuliburuek apologoak, alegiak genero txikien artean jasotzen izan dituzte, halako idazlanei mesfidati begiratu izan dietelako zenbait adituk. Animaliak, landareak, eta gauzakiak berbetan agertzen dira. Ez da harrigarri, gizarte paganoak animistak izaten dira, eta halakoxeak izan ohi dira umeak hainbat urtean. Errekurtso artifiziozko hori gizartean bene-benetakotzat hartzen diren balio moral ustez egiaztatuen euskarri da. Pentsalari batzuek ukatzen duten arren iritzi edo ikuspegi bat populuarengan errotuta egotea egiazkotasunaren frogarria denik. Kontrakoa ere esan liteke.

Alegien bitartez egileek gizarteari ispilua jarri gura izaten diote aurrean, inoren buruan zentsa dadin. Izango al da bilduma hau egungo umeen eskarmentagarria? Hartzaile barik, ikaskizunik ezean, alegiak izatea bera galtzen du. Zuberoan diotenez, "Hobe da zentzü borogatü ezi ez zentzü eskolatü!".